

## XXXIII

# Edebé Saria

## Haur eta Gazte Literatura

Idazle guztiak gonbidatzen ditugu

**XXXIII. Edebé Haur eta Gazte Literatura sariketan** parte har dezaten. Urtero deitzen den lehiaketa honetan kalitate handiko idazlanak bildu ohi dira.

Fantasiatzko ipuinak, narrazio umoretsuak, istorio zirrargarriak edo kontakizun liluragarriak, irakurle gazteen ametsak pizteko.

**Aurkeztu zure idazlana, parte hartzeko.**  
**Denok dugu saritzeko moduko zerbeit.**

Bi sari-modalitate daude: haurrena, 7 urtetik 12ra bitartekoei zuzendutako narrazio-lanei zuzendua, 25.000 euroko saria duena; eta gazteena, 12 urte baino gehiagokoentzat idatzitako lanetarako, 30.000 euroko saria duena. Bi modalitateetako bakar batean parte har daiteke.

Bi modalitateetan, saria jasotzeak esan nahi du, jabetza intelektualak irauten duen artean, egileak Edebéren esku lagako dituela, eskusiban, lanaren ustiatze-eskubideak, edozein hizkuntza, formatu eta banaketa-kanaletan, zuzenean nahiz hirugarrenen bidez, mundu osorako; lagapen hori formalizatzeko, egileak argitaletxean une horretan indarrean dagoen edizio-kontratu estandarra sinatzeko betebeharra izango du. Edebé Sariaren diru kopurua ustiatze horien bidez lortutako egile-eskubideen aurrerapentzat hartuko da.

Edebé argitaletxeak izango du lehentasuna epaimahaiak argitaragarri deritzen baina bi modalitateetako batean ere saririk jaso ez duten lanen eskubideak eskuratzeko, estatuko hizkuntza guztietarako.

Lanak jatorrizkoak izango dira, argitaragabeak, gai librekoak, eta gaztelaniaz edo estatuko beste edozein hizkuntzatan idatziak. Literatura-generoa: nobela. Bi kopia bidali behar dira koadematurik, eta beste kopia bat euskari informatikoan, honako helbide honetara: Premio Edebé de Literatura Infantil y Juvenil. Editorial Edebé. Paseo San Juan Bosco, 62. 08017 Barcelona. Garbi adierazi behar da zein sailetara aurkeztu nahi den lana. Era berean, bidalketa hori mezu elektronikoko batekin batera bidali beharko da, honako helbide honetara: premio@edebe.net, gaien "Edebé Saria 2025" adierazita, paperean egindako bidalketan (obraren jatorrizkoak eta plika) agertzen diren datu berberekin.

Lanen luzera: haurren sailean, 20 orrialde gutxienez eta 80 gehienez; gazteen sailean, 80 orrialde gutxienez eta 200 orrialde gehienez. Lanak lerroarte bikoitzarekin eta alde bakar batetik mekanografiaturik aurkeztuko dira, DIN-A4 orrietan. Jatorriko aleak gutun-azal itxi batean bidaliko dira. Bertan, egilearen izena, helbidea, posta elektronikoa, telefono-zenbakia eta sariketaren arauen onarpena adieraziko dira. Epaimahaiak bi modalitateetako irabazleak zein diren ebatzi ondoren irekiko ditu gutun-azalak.

Parte-hartzaile bakoitzak berak sortutako nahi beste lan aurkez dezake, baina modalitate bakarrean. Halaber, nahitaezkoa da, batetik, aurkeztutako lanak beste ezin lehiaketatarata ez aurkeztea; eta bestetik, inolako argitalpen-konpromisorik ez izatea, ez Edebé sarira aurkeztu aurretik, ez lehiaketaldian bertan.

Lanak hartzeko epea 2024ko irailaren 16ean amaituko da. Ezin izango dute lehiaketan parte hartu, ez Edebé taldeko langileek ez eta aurreko edizioiko irabazleek ere.

Epaimahaia Edebék izendatuko du eta literaturan eta hezkuntzan adituek osatuko dute. Edebé Sariketaren epaia argitaratzean jakinaraziko da haren kideak nor diren. Epaimahaiaren ebazpena ezeztazina izango da, eta 2025eko urtarilaren amaiera aldera jakinaraziko da, ekitaldi batean.

Saritu gabeko lanak deuseztatu egingo dira, sariak banatu eta hurrengo lau hilean. Lanen bat galduz gero, argitaletxeak ez luke inolako erantzukizunik hartuko.

Edebé Haur eta Gazte Literatura Sarian parte hartzeak oinarri guztiekin ados izatea eta onartzea dakar.

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean eta Legean xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu eman zaizkigun datu pertsonalak EDEBE EDUCACIÓN SLU (IFK: B91370734) sozietatearen titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla, eta helburu esplizitu eta legitimoarekin tratatuko direla, hau da, inskripzioa, parte-hartzea eta lehiaketarekin zerikusia duten gainerakoak kudeatzeko.

Zure datuak konfidentzialak dira eta gorde egingo dira, edizio honetako saria era baki arte, salbu eta finalista edo irabazle suertatzen bazara. Kasu horretan, datuak argitaratze-kontratuan arautzen diren eran tratatuko dira. Onartzen duzu zeuk emandako datuak laga ahal izatea sariak sustatzen dituzten enpresa eta entitateei, babesleei edo sariak kudeatzeaz eta entregatzeaz arduratzen direnei, bai eta agintariei, organismoiei edo beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturi, estatuko, autonomiako edo tokiko beste edozein legezko betebehartarako, edozein arau-mailatan.

Tratatzen diren zeure datuak eskuratu ditzakezu, eta eskubidea duzu haiek zuzentzeko, eramateko, kentzeko, mugatzeko eta aurka egiteko, bide hauetatik: idazki bat bidaltzea EDEBÉ EDUCACIÓN, Paseo San Juan Bosco, 62. 08017 (Barcelona) helbidera, edo helbide elektronikoko honetara: arco@edebe.net.

Zure eskubideak baliatzeari dagokionez gogobetetzetik lortu ez baduzu, erreklamazioa aurkez dezakezu kontrol-agintaritzaren eskudunean.

Berariazko baimena ematen diozu EDEBÉ EDUCACIÓNi zure datu pertsonalak argitaratzeko, erreproduzitzeko eta erabiltzeko (baita Interneten eta sare sozialetan ere), zure irudia eta, hala badagokio, zure ahotsa bame, lehiaketako parte-hartzaile gisa. Irabazleek eta finalistek, gainera, konpromisoa hartzen dute beren obra aurkezteko eta sustatzeko ekitaldietan pertsonalki parte hartzeko.

Lanak guztiz argitaragabeak eta jatorrizkoak izan behar dute, gai librekoak eta gaztelaniaz edo Estatuko edozein hizkuntzatan idatziak.

**Ez dira onartzen adimen artifizialaren bidez edo hura erabilia idatzitako jatorrizkoak. Egileak hala bermatu beharko du, kontratu bidez.**